Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

2750

AGINDUA, 2009ko apirilaren 30ekoa, Kultura sailburuarena, Euskadi literatura-saria, haur eta gazteentzako euskarazko literatura modalitateari dagokiona, arautu eta horretarako dei egiten duena.

Haur eta gazteentzako euskarazko literatura-lanetarako Euskadi literatura-sariak haur eta gazteen gaien inguruan euskaraz idatzi eta argitaratutako lan baten literatura-kalitatea saritzen du, euskararen normalizazioa bultzatzeko eta euskara aberastu eta haur eta gazteentzako literatura-adierazpenerako erabil dadin.

Kultura Sailak urtero egiten du sari honetarako deialdia asmo bikoitzarekin: saritutako lana zabaltzea eta egilea bera eta bere gainerako lanak ezagutaraztea.

Argitalpenen alorrean duen oihartzun eta garrantziagatik, sari hau euskal literatura sustatzeko eta zabaltzeko tresnarik egokienetako bat bihurtu da.

Kultura Sailaren egitekoa da, besteak beste, literatura-sorkuntza errazten duten jarduerak sustatzea. Beraz, bere zeregina betetzeko, Kultura Sailak egoki deritzo haur eta gazteentzako euskarazko literatura-lanetarako Euskadi literatura-saria arautzeari eta horretarako deialdia egiteari.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea Euskadi literatura-saria, haur eta gazteentzako euskarazko literatura modalitateari dagokiona, arautzea eta horretarako dei egitea da.

2.– Aipatu literatura-sariaren asmoa da, bizirik dagoen egile batek haur eta gazteentzako literaturaren alorrean euskaraz idatzitako lan nabarmenena saritzea, kontu horietan adituak direnen arabera.

2. artikulua.– Sariaren izaera.

1.– Haur eta gazteentzako euskarazko literatura modalitateari dagokion Euskadi literatura-saria 18.000 euro gordinez hornituta dago. Diru hori saritutako lanaren idazleari emango zaio. Diru-kopuru hori zati ezina izango da. Saritutako idazleak, era berean, Mari Puri Herrerok Kultura Sailarentzat berariaz eginiko Idazle Zuhaitza izeneko eskultura zenbatua jasoko du.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2750

ORDEN de 30 de abril de 2009, de la Consejera de Cultura, por la que se convoca y regula el Premio literario Euskadi, modalidad de literatura infantil y juvenil en euskera.

El premio literario Euskadi, modalidad de literatura infantil y juvenil en euskera, premia la calidad literaria de una obra de temática infantil y juvenil escrita y publicada en euskera, contribuyendo así al uso y enriquecimiento del euskera como lengua de expresión literaria dirigida al público infantil y juvenil.

Este premio, convocado anualmente por el Departamento de Cultura permite la divulgación de la obra premiada, y facilita, de este modo, el conocimiento del autor o autora y del resto de su producción literaria.

Su repercusión y trascendencia en el sector editorial, han convertido a este premio en uno de los instrumentos más idóneos para la promoción y difusión de la literatura vasca.

Entre los cometidos que corresponden al Departamento de Cultura, se encuentra el fomento de actividades que propicien la creación literaria. Por lo tanto, en cumplimiento de sus funciones, el Departamento de Cultura cree procedente convocar y regular el Premio literario Euskadi, modalidad de literatura infantil y juvenil en euskera.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

1.– Es objeto de la presente Orden convocar y regular el Premio literario Euskadi, modalidad de literatura infantil y juvenil en euskara.

2.– El mencionado premio pretende distinguir la obra de aquel autor o autora vivo que, conforme al criterio de especialistas en la materia, resulte sobresaliente en el ámbito de la literatura infantil y juvenil en euskara.

Artículo 2.– Naturaleza del Premio.

1.– El premio literario Euskadi, en su modalidad de literatura infantil y juvenil en euskara, estará dotado de 18.000 euros brutos que serán entregados al autor o autora de la obra que resulte premiada. Dicha cuantía tendrá el carácter de indivisible. La persona premiada recibirá también un ejemplar numerado de la escultura titulada Idazle Zuhaitza, obra artística conmemorativa realizada por Mari Puri Herrero para el Departamento de Cultura.

2.– Horrez gain, saritutako literatura-lanaren egileak beste diru-kopuru hau ere jaso ahal izango du: 4.000 euro gordin, saritutako lana euskara ez den beste hizkuntza batean argitaratzeko kontratua sinatu ostean, betiere 1.000 aleko gutxieneko tirada batean.

3. artikulua.– Kudeaketa-organoa.

Honako deialdi honen kudeaketa Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio.

4. artikulua.– Literatura-lanen betekizunak.

1.– Haur eta gazteentzako euskarazko literatura modalitateari dagokion Euskadi literatura-saria eskuratzeko aukera, argitaratze unean bizirik dauden egileek haur eta gazteentzako literaturaren alorrean jatorriz euskaraz idatzitako lanek izan ahalko dute. Lan horiek lehen aldiz 2008ko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 artean argitaratuak izan beharko dute, zabalkundea egiteko bete beharreko lege-baldintzak betetzen dituztela. Literatura-lana argitaratu den egunari buruzko zalantzarik izanez gero, Lege-gordailuaren eratze-data hartuko da kontuan.

2.– Hala ere, honako sari hau azken hiru deialdietako batean jaso duten idazleen lanak alde batera utziko dira, nahiz eta goiko atalean zehaztutako baldintzak bete.

5. artikulua.– Epaimahaia.

1.– Literatura-lanen kalitatea neurtu eta Euskadi literatura-saria, haur eta gazteentzako euskarazko literatura modalitateari dagokiona, nori egokituko zaion erabakitzea, bost kidez osatuta egongo den epaimahaiari dagokio. Epaimahaikideak abstenitu egingo dira eta ezetsiak izan daitezke Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan ezarritako kasuetan.

2.– Epaimahaia osatzeko orduan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, bere 3.7. artikuluan dioena beteko da, eta epaimahaikideak, Kultura sailburuak izendatuak, honako hauek izango dira:

a) Aurreko urteko irabazlea.

b) Galtzagorri elkarteak proposatutako epaimahaikide bi.

c) Euskal Herriko Unibertsitateak proposatutako epaimahaikide bat.

d) Mondragon Unibertsitateak proposatutako epaimahaikide bat.

3.– Epaimahaia osatuko duten bost kideetatik bat, Kultura sailburuak horretarako izendatzen duena, epaimahaiburua izango da.

2.– El premio conllevará, asimismo, para el autor o autora de la obra premiada, la posibilidad de percibir 4.000 euros brutos tras la formalización de un contrato de edición de la obra premiada en un idioma diferente al euskara y con una tirada mínima de 1.000 ejemplares.

Artículo 3.– Órgano gestor.

La gestión de la presente convocatoria corresponderá a la Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Artículo 4.– Requisitos de las obras.

1.– Podrán optar al Premio literario Euskadi, en su modalidad de literatura infantil y juvenil en euskara, las obras de creación literaria, de carácter infantil y juvenil, escritas originalmente en euskara por autores y autoras vivos en el momento de la publicación que, cumpliendo con los requisitos legales exigidos para su difusión, hayan sido publicadas por primera vez entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2008. En el supuesto de que existieran dudas con relación a la fecha real de edición, éstas se dilucidarán tomando como tal la fecha de constitución del Depósito Legal.

2.– No obstante, no serán tenidas en cuenta aquellas obras que, pese a reunir los requisitos establecidos en el apartado anterior, hayan sido escritas por personas galardonadas con el presente premio en alguna de las tres ediciones anteriores.

Artículo 5.– El jurado.

1.– La evaluación de la calidad literaria de las obras y consiguiente emisión del fallo del Premio literario Euskadi, en su modalidad de literatura infantil y juvenil en euskara, corresponderá a un jurado compuesto por cinco personas. Éstas deberán abstenerse y podrán ser recusadas en los términos previstos en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– En el momento de formar el jurado, se cumplirá lo establecido en el artículo 3.7 de la Ley de 18 de febrero 4/2005, para la igualdad de mujeres y hombres, y los miembros del jurado, designados por la Consejera de Cultura serán:

a) La persona ganadora del año anterior.

b) Dos miembros del jurado propuestos por la asociación Galtzagorri.

c) Un miembro del jurado propuesto por la Universidad del País Vasco.

d) Un miembro del jurado propuesto por la Universidad de Mondragon.

3.– De entre las cinco personas que integrarán el jurado una de ellas, la que para ello sea designada por la Consejera de Cultura, ostentará la presidencia del mismo.

4.– Idazkari-lanetan Eusko Jaurlaritzako funtzionario bat arituko da, hori ere Kultura sailburuak izendatua. Iritzia eman ahal izango du, baina botorik ez.

5.– Erabakia hartu baino lehenago, EHAAn argitaratuko den Kultura sailburuaren agindu baten bidez emango da jakitera epaimahaiaren osaera.

6.– Erabaki-proposamena hartzeko, epaimahaiak irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

Lanen kalitate literarioa.

Originaltasuna.

Literatura-hizkeraren egokitasuna.

6. artikulua.– Parte hartuko duten obrak eta finalistak.

1.– Epaimahaiak, parte hartuko duten lanen proposamena egingo du, lan horiek aztertuko ditu, eta ezarririko irizpideak aplikatuz, finalisten zerrenda prestatuko du.

2.– Kultura Sailak lanen egileei banaka jakinaraziko die finalistak direla. Halaber finalisten zerrenda zabaldu ahalko du, interesdunek espresuki ezetza eman edo uko egiten ez badiote. Horretarako, jakinarazten zaienetik bost eguneko epea izango dute.

7. artikulua.– Sariari buruzko erabakia.

1.– Epaimahaiak saria emateko proposamena egingo du, eta bertan adieraziko ditu hartutako akordioa justifikatzen duten arrazoiak.

2.– Sariari buruzko erabakia, agindu honek indarra izan eta, gehienik ere, sei hilabeteko epean hartuko du Kultura sailburuak, epaimahaiaren proposamena ikusirik. Erabaki hori EHAAn argitaratuko da. Horrez gain, saritutako idazleari berari zuzenean jakinaraziko zaio eta hedabideetan Kultura Sailak bidera ditzakeen zabalkunde-ekintzak ere egin ahal izango dira.

3.– Erabakiak, haur eta gazteentzako euskarazko literatura modalitateari dagokion Euskadi literatura-saria jasotzea merezi duen literatura-lana zein honen merezimenduak zehaztuko ditu.

4.– Saria inori eman gabe uztea ere erabaki ahal izango da, epaimahaiaren iritziz literatura-lan bakar batek ere beharrezko kalitate-baldintzarik betetzen ez badu.

8. artikulua.– Sariaren ordainketa.

1.– Saria ematen duen ebazpena hartutakoan, sariaren ordainketa egingo da, gehienez hiru hilabeteko epean.

2.– Saritutako lanaren egileari bere literatura-lana euskara ez den beste hizkuntza batean argitaratzeko kontratua egite aldera eman beharreko diru-kopurua, kontratua sinatu dela Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzan egiaztatu ondoren ordainduko

4.– Ejercerá las funciones de secretaría del jurado un funcionario o funcionaria del Gobierno Vasco, asimismo, designado por la Consejera de Cultura, que actuará con voz pero sin voto.

5.– La composición del jurado se hará pública con anterioridad al fallo mediante la inserción en el BOPV de la Orden de la Consejera de Cultura.

6.– El jurado tendrá en cuenta los siguientes criterios para hacer la propuesta:

Calidad literaria de los trabajos.

Originalidad.

Idoneidad del lenguaje literario.

Artículo 6.– Obras participantes y finalistas.

1.– El jurado hará la propuesta de obras a concurrir y evaluará las mismas, elaborando una relación de las que, en aplicación de los criterios establecidos, estime finalistas.

2.– El Departamento de Cultura comunicará de manera individualizada a los autores o autoras de las obras su condición de finalistas y salvo que dichas personas declinen o renuncien expresamente, para lo cual dispondrán un plazo de cinco días desde la comunicación, podrá difundir la relación de finalistas.

Artículo 7.– Fallo del premio.

1.– El Jurado formulará una propuesta de concesión del premio, en la que expresará las razones que justifican el acuerdo adoptado.

2.– Una vez vista la propuesta del jurado, la Consejera de Cultura adoptará la correspondiente resolución en el plazo máximo de seis meses desde que surta efectos la presente Orden. Y se publicará en el BOPV, sin perjuicio de la notificación individualizada a la persona premiada así como de cuantas actividades difusoras emprenda el Departamento de Cultura ante los medios de comunicación.

3.– Dicho fallo comprenderá la designación de la obra merecedora del Premio literario Euskadi, en su modalidad de literatura infantil y juvenil en euskara, así como los méritos que concurran en la misma.

4.– El fallo del premio podrá consistir en la declaración de desierto del mismo cuando el jurado estime que ninguna de las obras reúne los requisitos de calidad exigibles.

Artículo 8.– Pago del premio.

1.– El abono del premio se realizará una vez adoptada la resolución que concede el premio, en un plazo máximo de tres meses.

2.– El pago de la cuantía a otorgar al autor o autora de la obra premiada por la formalización del contrato para la edición de la misma en idioma diferente al euskara se realizará previa acreditación de su suscripción ante la Dirección de Promoción de la Cultura del

da. Horretarako, kontratuaren kopia bidali beharko da 2011ko martxoaren 31 baino lehen.

3.– Bestalde, saritutako lanaren egileak berak aukeratutako hizkuntzara itzulitako eta argitaratutako lan horren hiru ale bidali beharko ditu Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzara, argitaratu eta hilabeteko epean, gehienez.

9. artikulua.– Baldintzak ez betetzea.

Agindu honetan finkatutako edozein betebehar zein beste edozein xedapenetan jasota egonik deialdi honi ezargarri izan dakiokeena betetzen ez bada, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan ezarritakoari ekingo zaio eta, hala badagokio, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoari.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Saria jasotzeko eskubidea galduko dute –eta, hala badagokio, jasotako diru-kopurua itzuli beharko dute– diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin administratiboki edo penalki zigortutakoek, bai eta horretarako gaitasuna kentzen duen legezko debekurik dutenek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legezko azken xedapenetako seigarrena urratuz sexu-diskriminazioa egiteagatik debeku horrekin zigortuta daudenak barne.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Deialdi honetan aurreikusi gabeko guztiari dagokionez azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea.

Bigarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Bere aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal diote Kultura sailburuari hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 30a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

Departamento de Cultura. La misma deberá realizarse mediante la remisión de una copia del contrato, con anterioridad al 31 de marzo de 2011.

3.– Asimismo, el autor o autora de la obra premiada deberá remitir a la Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura tres ejemplares impresos de la obra traducida a la lengua de elección en el plazo máximo de un mes desde su edición.

Artículo 9.– Incumplimientos.

El incumplimiento de cualquier obligación establecida en la presente convocatoria así como en cualquier disposición de carácter general aplicable a la misma dará lugar a la aplicación de lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y, en su caso, en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Constituirá supuesto de pérdida del derecho al premio y obligación en su caso de devolución de las cantidades percibidas, el haber sido sancionado o sancionada administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o hallarse incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En todo lo no previsto en la presente convocatoria será de aplicación supletoria la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el BOPV, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

Tercera.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de abril de 2009.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.